

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juan Joxe Agirre Begiristain

*Alegia,
Gipuzkoa
(1930)*

Aurkibidea



Biografia



Alegiako San Juan kaleko etxe
batean jaioa, hamaika
senidetan bigarrena. Aita
Idiazabalgoa zuen, eta ama
Ataunen jaioa, bederatzi
urterekin Altzo azpira
bizitzera joan bazen ere.
Alegian pasatu zituen
bizitzako lehen hamahiru
urteak, jolasean eta eskolan.
Azken bi urteetan,
"partikular" ibili zen, amak
hala nahita. Hamahiru
urterekin, ordea, fraide edo
apaiz izan nahi zuela erabaki
zuen, eta Lazkaoko fraide-
etxera joan zen, ikastera,
Alegiako hiru lagunekin
batera. Ikasketak Belloc-en
bukatu zituen, azken urtea
bertan egin baitzuen,
frantses hutsean. Ondoren,
beneditarrek batxilergoa
irakasten zuten eskolan
jardun zuen lanean, irakasle
lehenik, eta zuzendari
ondoren. Halako batean,
ordea, beneditarrek eskolaren
ardura izateari utzi zioten,
eta Juan Joxe zereginik gabe
gelditu zen. Aldi berean,
fraide-etxeko liburutegiaren
ardura norbaitek hartu
beharra suertatu zen, eta
Juan Joxek bere burua
proposatu zuen horretarako,
baldintza batekin: kanpora
joan nahi zuen
bibliotekonomia ikastera.
Hala joan zen Montserrat-eko
monasteriora. Han ikusi zuen
liburutegi eta artxibo batek
izan zezakeen garrantzia,
herri baten historia gorde eta
gerora berreraikitzeko.
Horregatik itzuli zen Lazkaora
indarrez gainezka, Euskal
Herriko liburutegi eta
artxiborik handiena egiteko
asmotan. Baita lortu ere. Bere
ardurapean osatutako
artxiboa Euskal Herriko
preziatuenetarikoa da,
preziatuena ez bada.

Zintak

ALE-003

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-04-13
- **Iraupena:** 122 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Aita, kamino arduradura

- **Erref:** ALE-003/002
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:03:14. **Bukatu:** 00:04:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

<p>Juan Joxeren aita ezkondu aurretik CAF-en aritu zen lanean. Gero, berriz, Alegia eta Tolosa arteko kaminoaren arduraduna izan zen: aldundiko langilea zen.</p>

2. 13 urterekin, seminarioa

- **Erref:** ALE-003/003
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:04:03. **Bukatu:** 00:05:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

<p>Garai hartan, 13-14 urterekin hasten ziren lanean neska-mutilak. Juan Joxe 13 urterekin seminarioa joan zen. Zer ikasketa egiten zituzten azaltzen du.</p>

3. Eliz giroa, herri guztietan

- **Erref:** ALE-003/004
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:05:28. **Bukatu:** 00:07:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Juan Joxeren mutil kozkor garaian, eliz giro handia zegoen herri guztietan. Lehen, inor ez zen oporretan ateratzen herritik kanpora: gehinez, bi-hiru

egunerako inguruko mendiren batera joango zen bat edo beste. Herri inguruan ibiltzen ziren, eta igandetan mezara joaten ziren. Alegian ba omen zen pertsona bat mezara joaten ez zena, "eta guri iruditzen zitzaigun oso pertsona arraroa" dio Juan Joxek.</p>

4. Meza nagusia eta bezperak

- **Erref:** ALE-003/005
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:07:12. **Bukatu:** 00:08:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Igandetan, hamarretako meza nagusira joaten ziren. Bezperetan, "tranpa" egiten omen zuten nahiz eta amak hara joatera behartu. Elizako ateraino joaten ziren, arrosarioa nork errezatzen zuen ikusi eta lagunartera joaten ziren. Etxeratutakoan, amak arrosarioa nork esan zuen galdetzen omen zien.</p>

5. Herriko eskola eta partikularra

- **Erref:** ALE-003/006
- **Iraupena:** 0:04:28. **Hasi:** 00:08:07. **Bukatu:** 00:12:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Herriko eskolan ibili zen sei urtetatik 11 urtera bitartean. Neskek eta mutilak aparte ikasten zuten. Eskolak gaztelaniaz izaten ziren, eta adin ezberdinetako mutilak egoten ziren gela berean. Gerra ondorenean, eskolan sartu eta aurreneko gauza besoa altxatu eta "¡Viva España!" esan eta 'Cara al Sol' abesten zuten. Ikasteko modua: buruz eta kantuen bidez. Eskolako azken bi urteetan maisu partikular batengana bidali zuten gurasoek.</p>

6. Ikasgaiak eta ikasmateriala

- **Erref:** ALE-003/007
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:12:35. **Bukatu:** 00:15:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

<p>Eskola garaiko kontuak. Ikasgaiak: matematika ("regla de tres"), geografia, historia, erlijioa... Ikasgai guztiak biltzen zituen liburu bat erabiltzen

zuten eskolan, entziklopedia modukoa. Ikasmateriala: pizarra, pizarrilloak, entziklopedia, liburu potoloa...</p>

7. Herri eskola eta partikularra

- **Erref:** ALE-003/008
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:15:11. **Bukatu:** 00:17:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Herri eskola edo "nazionalaren" eta partikularren arteko diferentziak. Partikularra ordainpekoa izaten zen, ikasle gutxiago izaten ziren, paperean eta arbelean egiten zuten lana, maisua gainean zegoen beti... Amak bidaltzen zuen partikularrera, herri eskolan ez zutela behar adina ikasten iritzita. Gutxiengo batek egiten zituen batxilergoko ikasketak.</p>

8. Eskolatik atera eta instrukzioak ikastera

- **Erref:** ALE-003/009
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:17:25. **Bukatu:** 00:19:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Mutikotan, eskolatik atera eta erreketek batekin instrukzioak egiten joaten ziren. Instrukzioak erdaraz izaten ziren, eta, Juan Joxek ez zekienez, eskuina eta ezkerra ("izquierda-derecha") ezin bereizita ibiltzen zen.</p>

Transkripzioa

- Eta, beste gauza bat eskolai buruz galdetu nahi nizuna, klaro, zuek, etxen, ama Ataungoa, beno Ataun... Altzokoa izanda...
- Bai, Alegria. Bai, 9 urtekin Alegrin bizi zan. Alegri, Altzon, bai.
- Ta aitta Idiazabalgoa, euskaraz hitz eingo zenuen.
- Bai, erabat. Erdera esaten dizut ba! Oroitzen naiz, beno, hau anekdota bezela, parre egitekoa da, baiño hala gertatu zan. Gerra ondoren, gerra bukatu ta 39n, mutil koxkorrak, gazte-gaztek giñan, zeara juten giñan, eskolara, eta, zeak, uste dut arratsaldean, ordu bitan uste det hasten giñala, bazkaldu ta gero, ordu bitatik lauetaa. Eta laueta korrika atera ta obligatuta joaten giñen, han kale eskin baten jarri eta instrukzioa egitera. Instrukzioan baziran karlista izandako bat, ez dakit ze puesto zun, eta danak harek erakutsi ein behar ziola eta guk berez jolas eitea, gureztat jolas eitea zan. Eta han ilaran jarri, jarri, bata bestearen ondon, eta eskuak gora, ezkerrea... ezkerrea bueltatu behar zala, baiña dana erderaz. Debekatu eiten zigun zeak euskeraz egitea, ta nik ez nekin "derecha" zer zan, "izquierda" zer zan, eta hola iten gendun. Ta zeak eskubira bidaltzen [zun]: "¡¡Brazo, a la derecha!!" Ez dakit ba, hola altxatzeko zan eta nik jarrita eta besteei begira, besteek altxatzen zuten, nik'e bai. Hori egia da. Eta geo, "izquierda" esaten zuenean igoal eskubia altxatzen nuen, ez bainekin ezkerra zer zan, "izquierda". Eta geo burua mugitzeko ta

instrukzio bezala egiten genitun, eta hor pentsa zazu ze erdera jakingo nun; ez nekin, ez nekin. Besteei begiratu ta harek ongi eiten baldin bazun, hura, eta gero errita.

- Ta instrukzio hoik ze, uniforme ta guzti eiten zenituen?
- Ez, ez, ez, ez, bestela, bestela.
- Reketen bat o izango zan...
- Reketea, reketea zan, bai, bai, bai. Rekete ibilitakoa.
- Ta, ze iten zenuen, mutilak bakarrik o neskak´e ibiltzen zian?
- Ez, neskak ez, mutilak bakarrik. Orduan, bueno, emakumezkoik ez.

9. Eskolan, erdaraz

- **Erref:** ALE-003/010
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:19:29. **Bukatu:** 00:21:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Eskolak erdaraz izaten ziren. Juan Joxek ez omen zekien erdaraz hitzik egiten, baina ulertu egiten zuen. Eskolan erdaraz egin arren, kalean, lagunartean... euskaraz hitz egiten zuten.</p>

Transkripzioa

- Ordun, zuek eskolan nahiz ta, bueno, hasiera... 6 urtetatik, erderaz izango zan.

- Bai, bai, bai, bai. Bai, nik hasieran ez nekin, ordea. Geo pixkanaka ulertzen hasi nintzen baiñan nik maixuri inoiz hitz bat ez nion erderaz esan, ez nekielako. Geo, ulertu egiten nuen, ulertu bai. Baiño geo iñoiz ere hitz erdi bat ere ez lagunei erderaz, ezta iñola ere ez, iñola ere.

- Zuek, ordun, euskaraz, nahiz ta erderaz ein, nahiz ta erderaz ein eskolan, kalea ateatakon zuen lagunai euskaraz...

- Dan-dana, bai, bai, dan-dan-dan-dana. Den-dena euskeraz. Baita honera etorri, hamahiru urtekin etorri, eta egia esateko batzukin ohitu nintzen erderaz. Garai hartan erderaz hitz egin zan Beasaingo, edo Ordiziakoa edo holakon bat zalako eta euskaraz ez zekitelako, nere moduan, erdera, baiña beste batzukin gaur arte, nik dauzketen edade [honarte], ordutik´e iñoz hitz bat ez diot erderaz egin, ezin detelako. Adibidez, ni anaie bate nola egingo diot erderaz? Neekin herriko bat sartu zanai, euskaraz, o erderaz, nola eingo diot? Eziñezkoa da. Izango zan anti-natura izango litzeke, ta hala´re ez, ezin, ezin.

- Ta Alegin, ordun, izango zian kanpotik etorritakok baita ere, umek, ezta? Bueno...

- Ume gutxi, e! Ordun gutxi. Garai hartan oindik´e inmigratioik eta holakoik ez zan, ez zan. Familin bat edo hola izango zan kanpotik etorrira, lanea hola, ingurun lan eiteko. Baiño hoiek...

- [...] familiya ta...

- Bai, nik ez, nik ez, ez, ez. Holakoik ez. Bat Pérez izeneko familia bat zeon baiño erabat gurekin ibiltzen zan ta harek gukin euskeraz. Bere gurasok ez zekiten, baiña gukin dana euskeraz egiten zuen.

10. 'Poxpolin' komiki liburua

- **Erref:** ALE-003/012
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:22:41. **Bukatu:** 00:23:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>Juan Joxek sei urte zituela argitaratu zen Tolosan 'Poxpolin' komiki liburua. Lopez Mendizabal zen argitaratzailea. Liburuko istorioei buruzko azalpenak.</p>

11. "Naparrak" Alegian sartu zireneko

- **Erref:** ALE-003/013
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:23:58. **Bukatu:** 00:26:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Gerra aurreko oroitzapenak. "Naparrak" Alegian sartu zireneko oroitzapenak. Gurasoek anaia zaharrena eta Juan Joxe amaren familiako baserrira bidali zituzten astebeterako. Tiroak eta soldaduak gogoratzen ditu. Herriko mutikoak soldaduen atzetik ibiltzen ziren.</p>

12. Gerra denborako kantua

- **Erref:** ALE-003/014
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:26:56. **Bukatu:** 00:28:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>Gerra denborako kontuak. Mojetan ikasten zuen lehengusu bati ikasitako kantu bat abestu. Musika notak eta agintearen aldeko letra uztartzen ditu kantuak.</p>

13. Tolosan erositako larruzko baloia

- **Erref:** ALE-003/016
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:29:08. **Bukatu:** 00:30:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetan, Juan Joxeri ez zitzaion pilotan ibiltzea gustatzen. Boloiarekin lasterka, futbolean... ibili ohi zen. Tolosan erositako larruzko baloiarekin ibiltzen ziren jolasean. Baloia lagunartean erosten zuten. Frontoian aritzen ziren futbolean

14. Dotrina buruz ikasi behar

- **Erref:** ALE-003/019
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:33:03. **Bukatu:** 00:35:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

13 urtera arte ibili zen eskolan. Astean bitan, eguerdi partean, dotrina edukitzen zuten on Lukas Guridi apaizarekin. Erdaraz ikasten zuten. Dotrina buruz ikasi behar izaten zuten jaunartzea egin ahal izateko. 12 urterekin "comunión solemne" (jaunartze handia) egiten zen.

15. Umetatik koruan

- **Erref:** ALE-003/020
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:35:09. **Bukatu:** 00:37:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

11 urte betetzerako hasi zen elizako koruan kantatzen. Akolito ere ibiltzen zen. Koruko entseguak iluntzetan izaten ziren. Latinez abestu ohi zuten.

16. Gudariei laguntzeko antzerkiak

- **Erref:** ALE-003/021
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:37:36. **Bukatu:** 00:40:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Musika
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerraostean, Eguberri eta Pazko inguruan, antzerkiak egin ziren preso zeuden herriko gudariantzat dirua biltzeko. Herriko apaizak eta hainbat herritarrek antolatzen zuten antzezlanak. Antonio Maria Labaien antzerkigile tolosarrak idatziko obrak antzeztu ohi zituzten. Emanaldi horiek isilka egiten ziren. Juan Joxek koruarekin parte hartu zuen antzezpen batean. Jende asko biltzen zen emanaldiak ikustera.

17. Arantzazuko frantziskotarrak eta Lazkoako beneditarrak

- **Erref:** ALE-003/023
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:42:37. **Bukatu:** 00:45:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

<p>Mutikotatik eliz giroan ibili izan zen Juan Joxe. 12 urte zituela akolito lanetan ibiltzen zen elizan, beste mutiko batzuekin batera. Garai hartan, Arantzazuko frantziskotarrak herriz herri ibiltzen ziren "bokazio bila". Frantziskotar bati Arantzazura joango zela agindu zioneko pasadizoa kontatzen du. Juan Joxek osaba bat zuen Lazkaoko beneditarretan, eta, fraide izan nahi zuela erabakita, 13 urterekin Lazkaoko fraide-etxera joan zen, Alegiako hiru lagunekin batera.</p>

18. Fraide izateko erabakia hartu

- **Erref:** ALE-003/024
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:45:54. **Bukatu:** 00:49:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

<p>Lazkaora fraide joateko erabakia hartu eta erabakiaren berri etxean eman zueneko garaiaz hitz egiten du Juan Joxek. Amak pozarren hartu zuen erabakia. Aitari ez zion esan azken unera arte, beldurrez edo. Ikasteko gogoz joan zen Lazkaora. Udan bakarrik joaten ziren herrira.</p>

19. Fraide-etxeko bizimodua eta ikasketa

- **Erref:** ALE-003/025
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:49:18. **Bukatu:** 00:52:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

<p>Lazkaoko fraide-etxeko bizimodua. Ikasketa urteak: sei urte "humanidades" ikasten, urtebeteko nobiziotza, hiru urte filosofia ikasketak egiteko, beste lau urte teologia ikasketak egiteko... Eta ondoren, apaiztu. Ikasketei eta ikasgaiei buruz hitz egiten du.</p>

20. Seminarioko aurreneko urteak

- **Erref:** ALE-003/026
- **Iraupena:** 0:04:37. **Hasi:** 00:52:27. **Bukatu:** 00:57:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Seminarioko aurreneko urteak. Bizi esperientzia. Ikaskideen arteko elkarbizitza nolakoa zen... Egunpasak, seminarioko lagunartea, oporretan herrira bueltatzea...</p>

21. Seminarioko ikaskideak eta euskarazko eskolak

- **Erref:** ALE-003/027
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:57:04. **Bukatu:** 00:59:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

<p>Seminarioko aurreneko urteak. Seminarioan sartu zen urtean, 12 ikaskide ziren. Horietatik lau Alegiakoak ziren. Euskarazko eskolak ematen zituzten: itzulpenak egiten zituzten, Zabalaren gramatika ikasten zuten... Irisarriko Mateo Agerre zuten euskara irakaslea.</p>

22. Baionan apaiztu

- **Erref:** ALE-003/030
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:01:04. **Bukatu:** 01:02:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

<p>Baionan apaiztu zen Juan Joxe. Organista behar zutela eta joan zen hara. Teologiako azken urtea han egin zuen. Berarekin batera apaiz ordenatu ziren kide batzuei buruz hitz egiten du.</p>

23. Apaiztu aurreko azken urtea Bellocen

- **Erref:** ALE-003/032
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:04:14. **Bukatu:** 01:05:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Apaiz ikasketak Bellocen bukatu zituen, azken urtea bertan egin baitzuen, frantses hutsean. Bellocen organista behar zutelako joan zen hara. Bellocen egon zen denboran bakardadea sentitu zuen; hango komentuko bizitza tradizionalistagoa zegoela dio.</p>

24. Montserratera, bibliotekonomia ikastera

- **Erref:** ALE-003/037
- **Iraupena:** 0:05:33. **Hasi:** 01:16:06. **Bukatu:** 01:21:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

<p>Beneditarrek eskolaren ardura izateari utzi zioten, eta Juan Joxe zereginik gabe gelditu zen. Aldi berean, fraide-etxeko liburutegiaren ardura norbaitek hartu beharra suertatu zen, eta Juan Joxek bere burua proposatu zuen horretarako, baldintza batekin: kanpora joan nahi zuen bibliotekonomia ikastera. Hala joan zen Montserrateko monasteriora.</p>

25. Montserrattetik Lazkaora bueltatu

- **Erref:** ALE-003/038
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:21:39. **Bukatu:** 01:23:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

<p>Montserrateko monasterioan bibliotekonomia ikasi eta Lazkaoko fraide-etxeko liburutegiaren ardura hartu zuen Juan Joxek. Liburutegiaren hasierari, obrei... buruz hitz egiten du.</p>

26. Liburutegi eta artxibo baten garrantziaz jabetu

- **Erref:** ALE-003/039
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 01:23:10. **Bukatu:** 01:26:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

<p>Montserrateko monasterioan egin zituen Juan Joxek bibliotekonomiako ikasketak. Han ikusi zuen liburutegi eta artxibo batek izan zezakeen garrantzia, herri baten historia gorde eta gerora berreraikitzeke. Caracasen zegoen kide beneditar baten bidez atzerrian Euskal Herriaz argitaratzen zen edozein material jasotzeko deia egin Juan Joxek. Gisa horretan, Euskal Etxeetatik material asko bildu zuen.</p>

27. Artxiboa, etorkizunera begira sortua

- **Erref:** ALE-003/045
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 01:33:10. **Bukatu:** 01:34:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

<p>Lazkaoko fraide-etxean liburutegi eta artxiboa sortzeko hasieran izan zituen zailtasunei buruz hitz egiten du: leku falta, material bilketa... "Biharko egunera" begira ekin zion lan horri Juan Joxek.</p>

28. Argitalpen klandestinoen, sermoien... bilketa

- **Erref:** ALE-003/046
- **Iraupena:** 0:05:03. **Hasi:** 01:34:43. **Bukatu:** 01:39:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Lazkaoko fraide-etxean liburutegi eta artxiboa sortzeko hasieran izan zituen zailtasunei buruz hitz egiten du. Hasiera batean liburutegia eratzeari ekin zion, eta gero etorri zen artxibategia osatzearen ideia. Argitalpen klandestinoen, sermoien... bilketarekin nola hasi zen. Bilketaren garrantziaz hitz egiten du.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-26

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com